

Fisiologia edo Medikuntzako Nobela, minbiziari aurre egiteko kontrol-postuaren immunoterapiari

James P. Allison eta Tasuku Honjo ikertzaileek jasoko dute Fisiologia edo Medikuntzako Nobel saria, minbizia tratatzeko bide berri bat aurkitzeagatik. Nobel sarien erakundeak nabarmendu duenez, garatu duten metodoa iraultzailea da, immunologia-sistemak berak minbizi-zelulei aurre egiteko erabiltzen duen sistema baliatzen baitu, minbizi-zelulak zuzenean suntsitzen saiatu beharrean.

Zehazki, eta nork bere aldetik, immunologia-sistemaren T-zelulak galgatzten dituzten proteinak ikertu dituzte Allisonek eta Honjok, proteina horiek kenduta edo inaktibatuta, immunologia-sistemak aurre egin diezaien minbizi-zelulei.

1990eko hamarkadan, Allisonek CTLA-4 proteina ikertu zuen. T-zelulen proteinetako bat da, eta galga-lana egiten duela aurkitu zuen. Aurrerago, CTLA-4ra lotzen den antigorputz bat diseinatu zuen; horren bidez, T-zelulak askatu eta minbizi-zelulei aurre egiteko gai ziren.

1994ean egin zuen lehen esperimentu bat saguetan, eta emaitza erabat arrakastatsua izan zen. 2010ean, berriz, pertsonetan saio kliniko bat egin

zuen, melanoma aurreratua zuten pazienteekin, eta haietan ere beste edozein tratamendurekin baino emaitza hobea lortu zuen.

Honjok, halaber, T-zelulen proteina bat ikertu du: PD-1 proteina. 1992an aurkitu zuen, eta erakutsi zuen hark ere galga-lana egiten zuela. Hura blokeatuta, T-zelulek minbizi-zelulei eraso egitea lortzen zuen, eta emaitzak Allisonenak baino are ikusgarriagoak ziren: 2012an, minbizi-mota desberdinak eta metastasia zuten zenbait paziente sendatzea lortu zuen.

Allisonen eta Honjoren ikerketek kontrol-postuaren immunoterapiari bidea ireki diote. Terapia erabat berritzailea da, eta, bien estrategiak elkarrekin erabilia, emaitza benetan itxaropentsuak lortu dira. Beste tratamenduekin batera ere erabil daitezke: erradioterapia, kimioterapia, kirurgia... Gaur egun, saio kliniko ugari ari dira egiten bide horretatik, beste minbizi-mota batzuk ere sendatzeko, eraginkortasuna hobetzeko eta albo-ondorioak saihesteko. ●



James P Allison
Alice (AEB), 1948.



Tasuku Honjo
Kyoto (Japonia), 1942.